

## 2016-2017 EPEko euskara azterketari buruzko informazio-oharra

### Probak: tokiak eta datak

2016-2017 EPEko euskara azterketak Osakidetzaren langileentzako 2018ko euskara azterketen bigarren ohiko deialdiaren toki eta egun berean egingo dira.

**Idatzizko proba 2018ko urriaren 27an** egingo da, **BECen (Barakaldo)**, eta **ahozko proba**, berriz, **2018ko abenduko** bigarren astean.

EPEan izena eman zutenean euskara azterketa egitea eskatu zuten hautagaiek, Osakidetzaren langileak izateagatik ohiko azterketetan izena eman bazuten ere, euskara azterketa bakarria egingo dute.

### Hizkuntza-eskakizunen azterketetan izena ematea

2016-2017 EPEa dela eta, hizkuntza-eskakizunak ziurtatzeko azterketak egin ahalko dituzte hautaketa-proben emaitzen zerrendak dituzten Ebazpenen arabera **oposizio-fasea gainditu dutenek**, baita probak gainditu ez badituzte ere ebazpen horien kontra epe barruan erreklamazioa aurkeztu dutenek ere, **behin-behinean**. Bi kasuetan nahitaezkoa izango da hizkuntza-eskakizunen probak egiteko eskabidea jasota izatea, hurrengo paragrafoan xedatutakoari jarraiki.

Hizkuntza-eskakizunak ziurtatzeko azterketak egiteko aintzat hartuko dira **2016-2017 EPEan izena emateko eskabidean egindako eskaerak** (hautagaiek kontsulta pertsonalizatuen bitartez egiaztatu dezakete) eta geroagoko aldaketetan egindakoak. Bada, beren eskabidean **hizkuntza-eskakizunen azterketak egiteko** (1.HE, 2.HE edo/eta 3.HE) aldaketak egin nahi dituztenek **2018ko irailaren 18tik 25era** izango dute aukera; horretarako, eskaera erregistratuta bidali behar zaio Hautaketa eta Horniketa Zerbitzuari (2016-2017 EPE); Araba kalea 45, Vitoria-Gasteiz (01006), edo eskaera helbide elektronikoa honetara bidali: [epe-ope@osakidetza.eus](mailto:epe-ope@osakidetza.eus)

2018ko urrian, Osakidetzak 2016-2017 EPEaren euskara-azterketetara deitutakoen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Lau gaitasun-probak (ulermena eta adierazpena, ahozkoa eta idatzizkoa) gaintzen dituzten EPEko hautagaiei ere ziurtagiria emango zaie, 2016-2017 EPEan merezimendu edo/eta betekizun gisa baloratzeaz gain, deialdiaren oinarrian zehaztutako baldintzetan.